

Eraikal jardueren memoria 2011


1.1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresak, kalitatea kudeatzeko sistemak ezarri eta hobetzea sustatzeko, iraunkortasuna bultzatzeko eta berrikuntza indartzeko Eraikalen laguntzaz 2011. urtean egin dituzten jarduerak laburbiltzen dira.

1.2. ZIURTAPENEN ETA ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREAN

1. irudian 2000tik 2010era eraikuntza sektoreko enpresen bilakaera azaltzen da, bai probintziaz, bai EAEko guztizkoa ere. 2000tik 2008ra, %60ko gorakada ezagutu du 5 langiletik gorako enpresen kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektorean¹ (1926 enpresetatik 2000. urtean, 3084ra 2008. urtean). 2009an eta 2010ean, ostera, %20a jeitsi zen, 2008arekin alderatuta (3084tik 2481era).²

1. irudia Eraikuntza sektoreko enpresa zenbakien bilakaera




¹ 41 EJSN (eraikinen eraikuntza); 42 EJSN (Ingeniaritza zibila); 43 EJSN (eraikuntza espezializatuen jarduerak) eta 68 EJSN (higiezin-jarduerak) barnean dauden enpresak kontutan euki dira (EJSN-2009).

² Eustat-eko datuak. Txostenaren datan ez daude eskuragarri 2011ko eraikuntzako sektoreko daturik.

2. irudian ziurtapenen bilakaera erakusten da, 41, 42, 43 eta 68 EJSN enpresetarako, ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001 arauen arabera. Aipatu beharra dago ISO 9001 ziurtapenen gorakada 2011an, aurreko urteekin konparatuz. Ziurtaturik dauden enpresen barnean, zenbait sistema baten, bitan edo hirutan ziurtaturik daude. Batzuk ISO 9001 ziurtapenarekin hasten dira eta ondoren, ingurugiro eta laneko segurtasuna prebenitzeko sistemak gehituz doaz, zeren, zailena, lehenego sistema ziurtatzea izaten bait da. Bestiak, hasieratik sistema osoak ezartzen dituzte, 2, 3 eta 4 sistema batera ziurtatzea helburu hartuz.


2. irudia. 41, 42, 43 eta 68 EJSN enpresetarako ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001 ziurtapenen bilakaera



Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

2009an eta 2010ean, ziurtaturik dauden enpresen kopurua handitzerakoan eta izatedun enpresen kopurua jaisterakoan, ISO 9001 enpresa ziurtatuen ehunekoa igo egin da, izatedunekin alderatuta, 3. irudian ikus daitekeenez. Dirudienez, 2011an ere enpresen kopurua murriztu egingo da, beraz, ziurtatuta dauden enpresen portzentajea handituko da.

3. irudia 41, 42, 43 eta 68 EJSN enpresetarako ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001 ziurtapenen portzentajearen bilakaera




Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

Arkitektura- eta aparejadore-estudioei, ingeniarietzi eta topografiegi dagokienez (71.1 EJSN), EAEko izatedun enpresen zenbakiaren guztizkoaren gaineko bereizitako EUSTATEko daturik ez dago.

4. irudian, Arkitektura- eta aparejadore-estudioen, ingeniarietza eta topografia zerbitzuen (aurrerantzean, estudioak) ziurtapen zenbakiaren bilakaera adierazten da. 2001. urtetik, ISO 9001 ziurtapenak hazkunde nabarmena izan du. Gauza bera esan genezake UNE 150301taz, 2009tik aurrera. UNE 150301 ziurtapena ISO 14001 ziurtapen kopuru berberera iristear dago.

4. irudia 71.1 EJSN enpresetarako ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001 ziurtapenen bilakaera



Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

1.3. ERAIKAL PROGRAMA

PARTAIDETZA

2011ko abendua arte (ikus 1. taula), kalitate-sistemak (ISO 9000), ingurugiro-sistemak (ISO 1001), laneko arriskuak prebenitzeko sistemak (UNE 81900 Ex lehenego eta OHSAS 18001 ondoren), ekodiseinu sistemak (UNE 150301) eta I+G+Bren kudeaketa sistemak (UNE 166002) ziurtatzeko, 832 sektoreko enpresak parte hartu dute Eraikaleko deialdi ezberdinetan, **partaidetza-indize altuak mantenduz**.

1. taula **Eraikal programan parte-hartzen ari diren enpresak (ISO 9000, ISO 14000, UNE 81900 Ex/OHSAS 18001, UNE 150301 eta UNE 166002)**

	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE guztizkoa
Eraikal 1	33	15	17	65
Eraikal 2	0	14	9	23
Eraikal 3	20	24	14	58
Eraikal 4	24	32	22	78
Eraikal 5	14	31	13	58
Eraikal 6	13	24	14	51
Eraikal 6 -P	2	20	15	37
Eraikal-8	6	39	19	63
Eraikal-9	4	46	16	66
Eraikal-10	9	70	30	109
Eraikal-11	5	45	36	86
Eraikal-12	16	85	37	138
Guztira	146	444	242	832

*Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila*

Azkeneko hiru deialditan (Eraikal-10, Eraikal-11 eta Eraikal-12) egondako partaidetza altua nabarmendu beharra dago, batez ere ISO 9001 ezartzeko proiektuetan.


EMAITZAK: ZIURTAPENAK

Eraikal programan eraikuntzako eta higiezinako enpresek izandako emaitzak 5. irudian agertzen direnak dira.

- ☞ 2011ko abendua arte, **Eraikal-en laguntzaz ISO 9001 ziurtapena lortu duten sektoreko enpresen zenbakia 340koa da** (53, 2011. urtean), **122 enpresek ISO 14001 ziurtapena lortu dute** Eraikal-en laguntzaz (34,

2011. urtean), **eta 138k OHSAS 18001 ziurtapena lortu dute** Eraikal-en laguntzaz (40³, 2011. urtean).

5. irudia Ziurtapenen emaitzak Eraikal-en (41, 42, 43 eta 68 EJSN. Eraikuntza eta Higiezin-Jarduerak)



Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

2. taularen arabera, 2011ko abendua arte ziurtapena lortu duten 400 enpresetatik, ISO 9001 (221) eta ISO 9001+ISO 14001+OHSAS 18001 (60) sistemetan ziurtatu dira nagusiki.

Tabla 1. Eraikal programan ziurtatutako enpresak (ISO 9000, ISO 14000, UNE 81900 Ex/OHSAS 18001, UNE 150301 eta UNE 166002)

Ziurtatutako enpresak	EAE guztizkoa
ISO 9001	221
ISO 14001	11
OHSAS 18001	28
ISO 9001+ ISO 14001	29
ISO 9001+OHSAS 18001	30
ISO 14001+OHSAS 18001	20
ISO 9001+ISO 14001+OHSAS 18001	60
ISO 9001+ISO 14001+OHSAS 18001+UNE 166002	1
Guztira	400


Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

Eraikal programan estudioek izandako emaitzak 6. irudian agertzen direnak dira.

³ Durante el 2011 se han dado de baja a 3 empresas certificadas, pero que no recibieron subvención. Se ha dejado en el gráfico, el número de certificadas OHSAS 18001 de 101, en vez de 98, en diciembre de 2010

- ☞ 2011ko abendua arte, **Eraikal-en laguntzaz ISO 9001 ziurtapena lortu duten estudioen zenbakia 130ekoa da** (14, 2011. urtean), **30 estudiok ISO 14001 ziurtapena lortu dute** Eraikal-en laguntzaz (4, 2011. urtean), **8k OHSAS 18001 ziurtapena lortu dute** Eraikal-en laguntzaz (2, 2011. urtean) eta **43k UNE 150301 ziurtapena lortu dute** Eraikal-en laguntzaz (12, 2011. urtean).

6. irudia Ziurtapenen emaitzak Eraikal-en (71.1. EJSN. Estudioak)



Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

3. taularen arabera, 2011ko abendua arte ziurtapena lortu duten 134 estudioetatik, ISO 9001 (72) eta ISO 9001+UNE 150301 (28) sistemetan ziurtatu dira nagusiki.

3. taula Eraikal programan ziurtatutako estudioak (ISO 9000, ISO 14000, UNE 81900 Ex/OHSAS 18001, UNE 150301 eta UNE 166002)

Ziurtatutako estudioak	EAE guztizkoa
ISO 9001	72
ISO 14001	1
UNE 150301	1
OHSAS 18001	1
ISO 9001+ISO 14001	11
ISO 9001+UNE 150301	28
ISO 9001+OHSAS 18001	2
ISO 14001+OHSAS 18001	1
ISO 9001+ISO 14001+UNE 150301	13
ISO 9001+ISO 14001+OHSAS 18001	3
ISO 9001+ISO 14001+UNE 150301+OHSAS 18001	1
Guztira	134

*Iturria: EAEko eraikuntza sektoreko egoera-mapa. Abendua 2011
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Salla*

EMAITZAK: PRESTAKUNTZA

2011. urtean Eraikal-en laguntzaz antolatutako ikastaroak 4. taulan agertzen dira.

4. taula 2011. urtean Eraikal-en laguntzaz antolatutako prestakuntza-ekintzak

Data	Prestakuntza-ekintzaren izena	Prestakuntza-ikastaroaren orduak	Bertaratutakoak
2011/03/15 eta 16	Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeari buruzko ikastaroa	16	14
2011ko martxoa, apirila eta maiatza	In situ entseguak normalizatzeko hiru lantade aholkatzea eta trebatzea; honako gaiet buruz prozedura normalizatuak garatzea: iragazkortasun entseguak, inklinometro instalazioak eta lurzoru eta lurpeko uren ungurumen-laginketa.	37	47
2011ko maiatzaren 2 eta 4	Kostuak kalkulatzeko tresna ezartzea	6	13
2011ko maiatzaren 3 dic-11	Kostuak kalkulatzeko tresna ezartzea	6	13
	Hirigintza eta eraikuntza jasangarriari buruzko ikastaroa	8	30
2011/12/19 eta 20	Enpresaren ordu-salneurriaren kostua kalkulatzeko		4

EMAITZAK: HEDAPENA

2011. urtean Eraikal-en laguntzaz antolatutako hedapen-jardunaldiak 5. taulan agertzen dira.

5. taula 2011. urtean Eraikal-en laguntzaz antolatutako hedapen-ekintzak

Data	Jardunaldiaren izena	Hedapenaren orduak	Bertaratutakoak
18/01/2011	Telekomunikazio-instalazioen buletinen tramitazio telematikoaren programari buruzko informazio-jardunaldia.	4	20
03/02/2011	Telekomunikazio-instalazioen buletinen tramitazio telematikoaren programari buruzko informazio-jardunaldia.	4	20
16/05/2011	Telekomunikazio-instalazio beren arau berriei buruzko informazio-jardunaldiak	4	20
19/05/2011	Telekomunikazio-instalazio beren arau berriei buruzko informazio-jardunaldiak	4	20
23/05/2011	Telekomunikazio-instalazio beren arau berriei buruzko informazio-jardunaldiak	4	20
26/05/2011	Telekomunikazio-instalazio beren arau berriei buruzko informazio-jardunaldiak	4	20
24/05/2011	Ingurugiroa eta industria-segurtasuneko instalazioak	1,5	16
21/11/2011	Eraikinen aireztapena eta bere ondoriak energiaren eskarian, akustikan eta airearen kalitatean	8	80
24/11/2011	2011ko datu-basearen aurkezpenaren jardunaldi teknikoa (Bilbo)	1,5	50
24/11/2011	2011ko datu-basearen aurkezpenaren jardunaldi teknikoa (Gasteiz)	1,5	30
25/11/2011	2011ko datu-basearen aurkezpenaren jardunaldi teknikoa (Donostia)	1,5	40

EMAITZAK: TRESNAK

2011. urtean Eraikal-en laguntzaz egindako gidak, tresnak, 6. taulan agertzen dira.

6. taula 2011. urtean Eraikal-en laguntzaz egindako tresnak

Urtea	Tresnaren izena
2011	Lan-arriskuen prebentzioaren ataria

EMAITZAK: ARGITALPENAK

2011. urtean egindako argitalpenak, 7. taulan agertzen dira.

7. taula 2011. urtean Eraikal-en laguntzaz egindako argitalpenak

Urtea	Argitalpena	Garatutako materialak
Martxo 2011	Eraikal Berriak aldizkaria 32. zenbakia	1.050
		15.000 komiki (15 orrialde)
		15.000 erantzuteko txartelak
		Web orria, http://beituprograma.com
2011	Beitu programaren 1. komikia	500 kamiseta

ERAIKAL WEBa eta BLOGa

2005eko laugarren hiruhilekotik erabiltzaieentzat **Eraikal web** orria (www.euskadi.net/eraikal) eskuragarri dago.

Orrialde honen bidez, sektoreko enpresen artean elkargune bat sortzen da, programaren informazio osoa bilduz, erabiltzaileen eskura orain arte garatutako materialak jarriz eta garrantzizko gaietaz berri emanez.

Orrialde honen ezaugarria, berrien, ekitaldien, hausnarketen eta sektorearentzat interesgarriak diren dokumentuen eguneratzean datza. 2011. urtean 338 albiste, 28 ekitaldi, 44 hausnarketa eta 58 dokumentu igo dira.



2011. urtean, Etxebizitza Saileko **Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategiaren web orriarekin** harremanetan jartzeko zenbait kanal ireki dira **Eraikal web** orrian:

- ☞ Home-ean bannerra;
- ☞ Laborategiko web orriko hainbat ataletara sartzeko aukera ematen duen zabalgarria: derrigorrez betebeharreko arauak, entsegu-laborategiak, tresna informatikoak, eraikuntza eta hirigintza lanetarako salneurrien datu-basea eta eraikinen ikuskaritza teknikoa.

Egindako bisitez gain, web orri honek sorrarazitako jakin-mina, erabiltzaileen eta eskaintzen diren zerbitzuen artean izandako elkarren eraginaren bitartez ikus daiteke. 2011. urtean:

- ☞ **Eraikal-en gaietara 5 harpidetza** (material, albiste, buletin, albiste eta programak antolaturiko ekitaldiez jakinaraztea).
- ☞ **8 kontsulta jaso dira:** Eraikal programari, deialdi berriari, programara aurkeztu ahal diren proiektuei, material teknikoen eskaerei eta kontsulta teknikoei buruzkoak.

Eraikal itaun postontzia oraindik dabilela azpamarratu beharra dago. 2001. urtean abian jarri zen. 2011. urtean 3 kontsulta egon dira.

2011ko laugarren hiruhilekoan **Eraikal blogaren** irteera egin zen, <http://eraikal.blog.euskadi.net/>. Eraikal web orritik blogera sar daiteke. Hiruhileko horretan 54 post jarri ziren (bai euskeraz, bai gastelaniaz) eta 385 bisita, 230 bisitari berri eta 1081 orrialde ikusiak izan zituen blogak.

7. irudia Eraikal blogaren Home



ERAIKAL-13

2011ko uztailan programaren deialdi berria, Eraikal-13, abiarazi zen, 1.350.000 €ko hasierako aurrekontua bideratuz. Oraindik ebatzi gabe dago.